

Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net - www.donostia.org
20003 Donostia

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI:

2015eko urtarrilaren 15ean argitaratu zuen Donostiako Udalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, irabazi asmorik gabeko entitate edo elkarteei laguntza emateko 2015 urteko diru laguntzen deialdia. Deialdi horretan jasotzen dira Euskara Zerbitzuak Donostiako Euskararen Plan Orokorra (2011-2015) garatzeko edota osatzeko 2015. urtean jarduerak eta egitasmoak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntzak emateko oinarri espezifikoak.

2015. urteko deialdian bi atal berezitu dira: bata, auzoetako plan integralak, 25.000 euroekin hornitua, eta bestea, jarduera zehatzak, 12.525,35 euroekin hornitua.

Kasu honetan, jarduera zehatzak soilik baloratu dira, auzoetako plan integralak aurretik erabaki zirelako. Oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskariak aztertu eta diru laguntzen banaketa egiteko erabilitako irizpideak kontuan harturik, irabazi asmorik gabeko elkarten emakidak zehaztu dira, oinarri orokorretako III. atalean zehaztatutako prozedurari jarraiki. Horrela, izapidegileak eskaerak baloratu ondoren, Balorazio Batzardeak dagozkion txostenak egin ditu. Dokumentu honi erantsita doaz balorazio irizpideak eta entitate bakoitzari emandako puntuaketa. Espedientearen eta Balorazio Batzardearen txostenen argitan izapidegileak behin-behineko proposamenak egin ditu.

Oinarri orokorretako 9. artikuluan zehaztutakoarekin bat, behin-behineko ebazpen proposamena egin ondoren interesatuei jakinarazi eta 10 eguneko epea eman zaie egoki iritzitako alegazioak aurkezteko.

Ez da inolako alegaziorik jaso.

Hala, Gobernu Batzarrak eskuordetzan emandako aginpidea erabili eta hauxe da Kultura eta Euskarako zinegotzi ordezkari honek Gobernu Batzarrari proposatutako,

ERABAKIA:

- 1) Ondoren azaltzen diren elkarteei taulan azaltzen diren diru laguntzak ematea, 2015eko urtarrilaren 15ean GAOn argitaratutako irabazi asmorik gabeko entitate edo elkarteei laguntza emateko 2015 urteko diru laguntzen 8. eranskineko Euskara Zerbitzuaren deialdiari dagozkionak.

Elkarteentzako diru laguntzak 2015 onartutako eskaerak				
IFK	Elkartea	Proiektuaren izenburua	Lortutako Puntuak	Diru laguntza
G75001263	106.8FM TTAN TTAKUN EUSKARA ELKARTEA	Ttan ttakun irratia	66	3.423,36 €
G20511911	ANTXETA TTANTTAKUN AISIALDI ELKARTEA	Euskara sustatzeko urteko plana	66	1.539,50 €
G20578126	ARRANO ELKARTEA	Auzoan euskara	36	310,33 €

Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 - Faxa 943483765 - udala_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net - www.donostia.org
20003 Donostia

		suspertzea		
F20068151	EZIKO	2015 udalekuak	39	316,51 €
G20461190	GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA	Donostiako bertso eskola	35	730,25 €
G01363027	SEXUNE	Haur sexualitatea eta tratu oneko harremanak	33	644,16 €
G75105536	SUSTATU KOMUNIKAZIOA DONOSTIA	Piztu.info	63	709,79 €
G20623047	TXIRAIN ELKARTEA	2105eko kultur ekintzak	44	334,23 €
G20539185	TALLER DE ARTES ESCÉNICAS DE DONOSTIA-AET	Formación integral de actores y actrices	23	263,34 €
G20736377	ZURRIOLA ANTZERKI ESKOLA	Zurriola antzerki eskolaren programa	52	3.038,49 €
G20869772	GKE PAUSUMEDIA	UHINAK KOLOREETAN: zubiak eraikiz	39	810,26 €
G20869772	GKE PAUSUMEDIA	EUSKALAKARI DONOSTIA	28	405,13 €
GUZTIRA				12.525,35 €

50
-2
102
XI
II
659

2) Oinarrien arabera, **honako eskaerak baztertzea** ondoren azaltzen diren arrazoiengatik:

Elkarteentzako diru laguntzak 2015 ukatutako eskaerak			
Elkartea	IFZ	Proiektua	Arrazoia
TOPATU KULTURA ETA KOMUNIKAZIO ELKARTEA	G75076513	Gazte sorkuntza lehiaketa. Bistaratu mikromatxismoa	Udaleko beste sail batzuei dagokie.
EKONOMISTEN EUSKAL ELKARGOA	V48107783	Ekonomistak ere euskaraz.	Arrazoia: egitasmoa elkargoko bazkideentzat soilik dago bideratua. (oinarri berezietako 10. artikulua)
ERETI GURASO ELKARTEA	G20227211	Euskararen bultzada eta zabaltzea	Zuhaizti ikastetxe barruko egitasmoa da. (oinarri berezietako 10. artikulua)
SIBILIA LAUAIZETAKO GURASO ELKARTEA	G20578126	Bertsolariak, ipuin kontalariak, musika	Lauaizeta ikastetxe barruko egitasmoa da. (oinarri berezietako

Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 - Faxa 943483765 - udala_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net - www.donostia.org
20003 Donostia

Elkarteentzako diru laguntzak 2015 ukatutako eskaerak			
		euskaraz	10. artikulua)
ASOCIACION DEPORTIVA Y CULTURAL TXIMELETA	G75114967	Euskariketan	Euskara ikastaroak ez dira deialdi honetan diruz laguntzen.
ULIALDE KULTUR ETA GASTRONOMIA ELKARTEA	G75100727	Mintza praktika	euskara ikastaroak ez dira deialdi honetan diruz laguntzen. Aurkeztutako gastua ez dago justifikatua ekimenerako
SEXUNE	G01363027	Sexu heziketa eta aholkularitza sexologikoa	itzulpenak eta sorkuntza; eta web orrialdeak ez dira deialdi honetan diruz laguntzen.
ASOCIACION DE MUJERES LAGUNAK DE INTXAURRONDO	G20223434	Taller de euskera y cultura del euskera	euskara ikastaroak ez dira deialdi honetan diruz laguntzen.

3) Erabaki hau Udaleko Web gunean eta udal iragarki-oholean **argitaratzea**.

4) Finantza Zuzendaritzaren Diruzaintza Burutzak **onarpenera eman diezaiola kopuru horiek ordaintzeari** diru laguntzak arautzeko oinarrietan jarritako eran. Hau da, diru laguntzaren %70 behin betiko emakida onartzen den unean bertan ordainduko da, arauzko izapideen arabera, eta gainontzeko %30a diruz lagundutako programaren edo jardueraren zuriketa egiterakoan. Zuriketa hau diru laguntzen deialdiaren 16. artikuluan jasotzen den dokumentuen bidez egin beharko da 2016ko martxoaren 31 baino lehen.

5) **Gastua (12.525,35 €)** 2015eko gastuen Aurrekontu Orokorreko Euskara Zerbitzuko 481.01 kontu sailari **egozte**a.


Donostian, 2015eko maiatzaren 27an

KULTURAKO ETA EUSKARAKO ZINEGOTZI-ORDEZKARIA


Iz.: Naiara Sampedro

EUSKARA ZERBITZUAREN BURUA


Iz.: Edurne Otamendi Garmendia



KONTABILIZATUA / CONTABILIZADO

Erreferentzia: / Referencia: "D": 14212/20-2/4

Consejo de la Junta
Ayuntamiento de San Sebastián
Paseo de la Victoria - Dirección General
Istejo Gobierno Provincial - Aprobado por la Junta de
Gobierno Local

SOB. ADM. 2.ª
E.M. 2.ª

Intervención de la Junta
Intervención de la Junta

CONSEJO DE LA JUNTA
Intervención de la Junta